

BATERALABS-EN UROLA ERDIKO ESQUALDEKO 1. SAIOAREN AKTA

Data: 2026ko maiatzaren 19a (asteartea)

Lekua: Basazabal Jauregia, Azpeiti, Gipuzkoa

1. Ekitaldiaren helburua

Ekitaldiaren helburua **Urola Erdian** herritarren laborategia hastea izan zen, lurraldeko klima-erronkak identifikatzeko eta gizarte-eragileen, herritarren eta erakundeetako ordezkarien ekarpenak jasotzeko.

Saio honek **Klima aldaketari eta horrek eskualdean duen eraginari buruzko informazioa** emateko, Urola Erdiko eskualdeko elkarte eta herritarren ordezkarien talde bat sortzeko eta bigarren saioan landuko diren erronkak ateratzeko balio izan zuen. Hori guztia herritar eta politikariek zuzenduta dago: hainbat udalerrri eta eskualde-agentzietako ordezkari publikoekin, auzo-elkarteekin, elkarte sektorialekin eta eskualdeko eragileekin.

2. Ekitaldiaren garapena

2.1 Blokeen garapena

Jarraian, ekitaldiaren blokeak, esku hartzeko benetako denborak eta arduradunak zehazten dira:

1. Ongi etorri instituzionala (5 min)

- **Arduraduna:** José Ignacio Asensio, Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasun diputatua.
- **Deskribapena:** Gipuzkoako Foru Aldundiaren partetik irekiera eta ongietorri hitzak bertaratuei. Proiektuak herritarren benetako partaidetzarako foro gisa duen garrantzia nabarmendu zuen, baita klima-aldaketak eguneroko bizitzan duen eragin zuzena eta Urola Erdiko eskualdean izan dezakeen eragina ere. Eskualde bakoitzera egokitutako

politikaren beharra azpimarratu zuen, oinarri zientifikoarekin eta herritarren eta administrazioen arteko lankidetzarekin.

2. Eskualdeko datuak eta informazioa aurkeztea (25 min)

- **Arduraduna:** Xabier Esteban, Naturklimaren zuzendaria, Dorleta Orúe-Echevarría, Naturklimateko Behatokiaren koordinatzailea eta Mónica Pedreira, Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko zuzendaria.
- **Deskribapena:** Klima-aldaketa propioak Urola Erdian duen eraginari buruzko datuak eta informazio zientifikoa azaltzea.

3. Parte-hartze prozesuaren aurkezpena (10min)

- **Arduraduna:** Luzia Salamanca, Osoigoko proiektuen arduraduna.
- **Deskribapena:** Parte-hartze prozesuaren azalpena, hiru saio dituela adieraziz: klima-erronkak identifikatzea, proposamenak egitea eta amaierako proiektua aurkeztea. Saioaren dinamikaren azalpen zehatza: erronkak identifikatzeko erabiliko liratekeen helburu espezifikoak eta dinamikak. Ordezkaritza publikoen eta eskualdeko agentzien parte-hartze aktiboaren garrantzia nabarmendu zen, prozesuaren ordezkaritza eta eraginkortasuna bermatzeko eta Bateralabs.eus-en online parte hartzeko aukera bermatzeko.

4. Parte-hartze dinamika (40 min)

Dinamika lan-mahaien bidez garatu zen. Mahai horietan, parte-hartzaileek lurraldeko klima-erronkak identifikatu zituzten, post its -ak erabiliz eta taldean eztabaidatuz. Ondoren, mahai bakoitzak identifikatutako ideia nagusiak partekatu ziren plenarioan. Herritarren laborategiaren saioan, taldeetan lan egin zen Urola Erdiko jasangarritasunarekin lotutako lehentasuneko arazoak eta erronkak identifikatzeko, arreta berezia jarriz mugikortasunari, hondakinen kudeaketari, espazio naturalei, energiari eta klima-aldaketarako egokitzeari.

Horretarako, eskualdeko mapa bat landu zen, eta mapa horren gainean tokiko erronkak identifikatu eta kokatu ziren. Jarraian, lan-mahai bakoitzak egindako ekarpen nagusiak jasotzen dira.

1. Taldea, bozeramailea: Aitor Larranaña, Ziztu Unibertsitate Elkarte

Lehenengo taldea basogintza eta ibaien kudeaketarekin hasi zen. Herritarrei ibaien eta basogintza egokiaren inguruko informazio eta pedagogia gehiago eskaintzeko beharra azpimarratu zen. Bereziki, basogintzak ingurumenaren zaintzan eta klima-aldaketaren mitigazioan duen garrantzia azaldu behar dela aipatu zen, baita ibaien kudeaketa eta garbiketa egokiaren beharra ere.

Bestetik, ur-ingurune naturalen erabilerarekin lotutako hausnarketa egin zuten. Azpimarratu zuten inguruko erreka eta putzu askoren kalitatea eskasa dela, eta horrek, neurri batean, udako garaian kostaldera joateko joera handia daukala jendeak. Horrekin batera aipatu zuten, beste lurralde batzuetan —Nafarroan, Errioxan edo Gaztelan, esaterako— barnealdeko putzu eta bainu-guneen erabilerarako kultura handiagoa dagoela; Urola Erdian, aldiz, kostaldearen gertutasunak bestelako ohiturak sustatu dituela, baina interesgarria izan daitekela horri buelta bat ematea.

Azkenik, mugikortasunari dagokionez, bizikletaren erabilera oraindik ere oso urria dela nabarmendu zuten, batez ere kultura falta dela medio. Nahiz eta bidegorri sareak existitu eta garraio publikoaren eskaintza hobetu den —bereziki Donostialdearekiko konexioetan maiztasunak handitu direlako—, industrialdeetara edo lanera joateko herritar askok autoa erabiltzen jarraitzen dutela azaldu zuen bozeramaileak. Lan-ordutegien hasiera eta amaiera uneetan Azpeitian sortzen diren auto pilaketek arazoaren dimentsioa agerian uzten dutela seinalatuz.

Erronken laburpena gaika:

Lehen sektorea:

- Basoen eta ibaien kudeaketa ekologikoa hobetzeko beharra.

Hezkuntza / Kultura:

- Basoek klima-aldaketa arintzeko duten zeregina azaltzeko beharra.
- Ur-ingurune naturalak erabiltzeko kultura eskasa.

Garraio publikoarekin jarraituz, Donostiarekiko konexioa nahiko egokia dela baloratu bazuten ere, Gasteiz eta Bilborako loturek hobekuntza nabarmenak behar dituztela adierazi zuten, bereziki unibertsitatera joaten diren herritarren beharrei erantzuteko.

Bukatzeko, Abiadura Handiko Trenaren (AHT) obraren testuinguruan, geltoki baten beharra eta azpiegitura horrek eskualdearentzat izan dezakeen garrantzi estrategikoa ere mahaigaineratu zuten.

Erronken laburpena gaika:

Mugikortasun jasangarria:


- Bidegorrein sarea zabaltzeko eta egokitzeko beharra.
- Bidegorrien eta industrialdeen arteko loturetan gabeziak daude.
- Bilbo eta Gasteizekin ez dago garraio publikoaren koenxio nahikorik.

Hezkuntza / Kultura:

- Bizikleta erabiltzeko kultura gutxi dago, nahiz eta azpiegitura egon.

Hiri-berroneratzea:

- Eskualdean AHTri lotutako geltoki bat baloratzea.



3. Taldea, bozeramailea: David Lopez, Ziztu Unibertsitateko Elkarte

Hirugarren taldeak ere mugikortasuna bailaran dagoen arazo nagusienetako bat dela komentatu zuen. Horren harira, bizikletaren erabilera sustatzeko proposamena egin zuten, garraiobide iraunkorra eta kutsadura gutxikoa delakoan. Adibide gisa aipatu zituzten Bilbo eta Donostiako bizikleta publikoen sistemak, eta Azpeitian eta Azkoitian antzeko zerbitzu bat martxan jartzea interesgarria litzatekeela adierazi zuten, bailara barruko mugikortasuna errazteko. Gainera, Azpeitia eta Azkoitia lotzen dituen bidegorriaren balioa nabarmendu bazuten ere, haren mantentzea hobetu beharra dagoela azpimarratu zuten, zenbait tokitan landarediak bidea hartzen duelako eta erabilera zailtzen duelako.

Bestalde, herri barruan autoaren erabilera gehiegizkoa dela aipatu zuten. Eguneroko joan-etorri laburretarako ere —hala nola umeak ikastolara eramateko edo erosketak egiteko— autoa erabiltzeko joera dagoela aipatu zen, eta horren aurrean erabilera murrizteko neurriak aztertu beharko liratekeela proposatu zuten.

Modu beran, Arabarekiko eta Bizkaiarekiko garraio publikoaren gabezia arazo nabarmen gisa identifikatu zuten ere. Donostiarako autobus konexioak egokiagoak direla baloratu zuten, baina Bilbo eta Gasteizerako loturak eskasak direla azpimarratu zuten, nahiz eta bailara bi hiriburu horien artean kokatuta egon eta distantziak antzekoak izan. Horrek ikasleengan eta auto propiorik ez duten pertsonengan eragin zuzena daukala aipatu zuten, izan ere, lanera joateko autoaren gastua pertsona askok bere gain hartu dezaketen arren, ikasleentzat zailagoa da. Horren aurrean, erakunde publikoek neurriak hartu beharko lituzketela adierazi zuten.

Azkenik, Azkoitian naturgune eta babesguneekin egiten ari den lana positiboki baloratu zuten, eta antzeko ekimen gehiago behar direla aipatu zuten, baita Azpeitian ere.

Erronken laburpena gaika:

Mugikortasun jasangarria:

- Kotxearen gehiegizko erabilpena, baita bidai laburretarako ere.
- Azpeiti-Azkoiti bidegorriaren mantenua hobetu beharra dago.
- Arba eta Bizkaiarekine z dagi garraio publiko konexiorik.


- Bizikletaren erabilera sustatzea, garraio jasangarri eta gutxi kutsazen duen garraio gisa.

Gobernantza:

- Erakundeek neurriak hartu beharko lituzkete ikasleen eta ibilgailu propiorik ez duten pertsonen garrio-beharrak asetzeko.

Klima-aldaketa:

- Azkoitian bezala, naturguneak babesteko eta balioztatzeko ekimenak bultzatzea.



4. Taldea, bozeramailea: Jose Ignacio Arrieta, Antxieta Arkeologi Taldea

Laugarren taldea hausnarketa batekin hasi zen. Urola trenaren adibidea jarri zuten mahaigainean. Gogorarazi zuten Zumaia eta Zumarraga lotzen zituen tren elektrikoa jada existitu zela, eta herritarrek ez zutela hura kentzeko erabakirik hartu; administrazioaren erabakia izan zela azpimarratu zuten. Horren harira, gaur egun mugikortasunari buruz herritarrei irtenbideak eskatzea nolabaiteko paradoxa dela aipatu zuten, lehenago bazegoelako funtzionatzen zuen garraio publiko egituratu bat. Era berean, trenbide zaharraren azpiegitura desegin eta, urte batzuk geroago, bidegorriak egiteko zubiak berreraiki behar izan zirela ere

gogorarazi zuten. Testuinguru horretan, mugikortasunaren arloan neurri sendoak hartu behar direla defendatu zuten.

Industriari dagokionez, komentatu zuten azken urteetan industria eta fabrika askoren itxierak eragin zuzena izan duela eskualdean; izan ere, gero eta jende gehiagok jo behar du bailaratik kanpora lanera, eta horrek auto bidezko mugikortasuna nabarmen handitu duela seinalatu zuten.

Naturguneekin jarraituz, Izarraitz babestutako eremua dela gogorarazi zuten, nahiz eta bertako lur gehienak jabetza pribatuan egon, partzela txikitan banatuta. Horren harira basoek klima-aldaketaren aurrean eta CO₂ isurketak arintzeko duten garrantzia azpimarratu zuten, eta aipatu zuten lur horiek esku pribatuetan egonda zailagoa dela ikuspegi ekologiko integral bat garatzea, lur-jabe askok etekin ekonomiko azkarragoa ematen duten landaketak lehenesten dituztela komentatu zuten. Zentzu horretan, lurrak berreskuratzeko eta baso-plan sendo bat garatzeko beharra azpimarratu zuten. Era berean, fauna gero eta urriagoa dela ere nabarmendu zuten.

Beste adibide zehatz batekin jarraitu zuten, Lasako eremuko adibidea aipatuz. Danona enpresaren inguruko lur eremu zabalak entitate handi baten esku daudela azaldu zuten, eta bertan pinuak moztu ondoren antzeko landaketak berriz egiteko joera dagoela kritikatu zuten, horrek herritar txikiengan izan dezakeen eragina ere aipatuz; izan ere, erakunde handiek eredugarri jokatu ezean, aipatu zuten zaila dela partikularrek bestelako kudeaketa ereduak sustatzea. Horren aurrean, administrazioak esku hartzeko aukera izan beharko lukeela planteatu zuten, espezie autoktonoen aldeko apustua eginez eta epe luzeko baso-kudeaketa sustatuz, ez soilik 10 urteko errentagarritasunera begira, baizik eta mende bateko ikuspegiarekin eta CO₂aren murrizketan eragin positiboa bilatuz.

Bukatzeko, herri barruko trantsizio ekologikoari lotuta, kotxe elektrikoaren erabilera sustatzeko neurriak eta erraztasunak eskaintzearen beharra aldarrikatu zuten, herritarrak mugikortasun eredu jasangarriagoetara bultzatzeko.

Erronken laburpena gaika:

Mugikortasun jasangarria:


- Eguneroko joan-etorrietarako kotxearen beharra.
- Kotxe elektrikoaren erabilera sustatzea.

Gobernantza:

- Esku-hartze publikoa Izarraitzko basoen kudeaketa jasangattia sustatzeko.

Lehen sektorea:

- Errentagarritasun azkarrean oinarritutako basogintza.
- Espezie auktoktonoak landatzea bultzatzea.
- Basoaren jabetzaren zatiketa.



5. **Itxiera:** José Ignacio Asensio, Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasun diputatuaren esku.